

## **BEKAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK, IKASTURTEAN ZEHAR EUSKARA IKASTAROAK EGITEAGATIK**

Berrizko Udalak oso garrantzitsutzat irizten dio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari, horri esker, Berrizko euskaldunen portzentajea handituko delako.

Horrexegatik, hain zuzen, aurrekontu partida bat ezarri du ikasturtean zehar euskalduntze ikastaroetara doazen Berrizko biztanleei bekak emateko.

### **1. artikulua. Xedea**

Deialdiaren xedea ondorengo hau da: ikasturtean zehar helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Berrizko biztanleentzako bekak emateko baldintzak arautzea, norgehiagoka erregimenean, halaxe agertzen baita Berrizko Udalak onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian.

### **2. artikulua. Onuradunak**

Dirulaguntza horien onuradun izango dira Berrizen erroldatuta egon eta aipatutako euskara ikastaroak egiten ari direnak euskaltegi eta barnetegi homologatuetan.

## **BASES POR LAS QUE SE REGULA LA CONCESIÓN DE BECAS POR LA REALIZACIÓN DE CURSOS DE EUSKERA DURANTE EL CURSO ESCOLAR**

El Ayuntamiento de Berriz considera de vital importancia la euskaldunización y alfabetización de personas adultas en aras a incrementar la población vasco parlante de Berriz.

Para ello, ha asignado una cantidad presupuestaria con el fin de otorgar becas a la ciudadanía de Berriz que durante el año acudan a clases de euskaldunización de adultos.

### **Artículo 1. Objeto**

Es objeto de esta resolución la regulación de las condiciones de concesión de becas, en régimen de concurrencia competitiva, para residentes en el municipio de Berriz por la realización de estudios de euskaldunización y alfabetización de personas adultas durante el curso tal y como viene recogido en el Plan General de Promoción del Uso del Euskera aprobado por el Ayuntamiento.

### **Artículo 2. Personas beneficiarias**

Podrán optar a estas becas todas aquellas personas empadronadas en Berriz y que acudan a cursos de euskera impartidos en euskaltegis e internados homologados.

Ez zaie diru-laguntzarik emango IRALE, HAEE bidezko ikastaroak egiten dituztenei.

No podrán ser beneficiarios/as de esta subvención quienes hayan realizado cursos a través de programas específicos de IRALE, IVAP.

### 3. artikulua. Dokumentazioa aurkezteko lekua

### Artículo 3. Lugar de presentación de la documentación

Eskariak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskari-orrietan.

Las solicitudes se deberán presentar en el Registro General del Ayuntamiento de Berriz, en los impresos que a tal efecto dispondrá el Ayuntamiento.

Eskariari dokumentazio hau erantsi beharko zaio:

La documentación adjunta que se debe acompañar a la solicitud es la siguiente:

- Dirulaguntza eskari normalizatua (Eranskina).
- Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- Matrikularen ordainagiria.

- Solicitud de subvención normalizada (Anexo).
- Fotocopia del DNI.
- Recibo del pago de la matrícula.

Euskaltegiaren egiaztagiria ikasleak, gutxienez, %80ko asistentzia izan duela egiaztatzen duena; hala ere, asistentziaren portzentaje zehatza adieraziko da.

Certificado del centro de enseñanza en el que se acredite que la asistencia a clase ha sido, al menos del 80%; en cualquier caso, se concretará el porcentaje exacto de asistencia.

### 4. artikulua. Epeak

### Artículo 4. Plazos

Diru-laguntza eskariak urte horretako abenduaren 10 baino lehen aurkeztu behar dira.

Las solicitudes de subvención deberán presentarse antes del 10 de diciembre del año en curso.

Eskariak ebazteko aurreikusitako gehienezko epea abenduak 31 izango da.

El plazo estimado para la resolución de las solicitudes será el 31 de diciembre.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar egun baliodunetako epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Eta jakinaraziko zaio, halaber, hala egiten ez badu, bere eskaria ez dela kontuan hartuko eta, hala ebatziko da indarrean dagoen legeriaren arabera.

#### **5. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa**

Ikasturtean zehar helduentzako euskalduntze ikastaroak egiteagatiko banatuko den gehienezko zenbatekoa urteko aurrekontuan zehaztuko da.

Araudi honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin. Edozein modutan, ez da gainfinantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, diru-laguntza murriztu egingo litzateke. Gainfinantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko beharizanen bat baino gehiago izanez gero, dena delako pertsona onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Berrizko Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

Cuando se observe que la documentación presentada es incompleta o no reúne los requisitos exigidos en las presentes bases, se requerirá a la persona interesada para que en un plazo de diez días hábiles subsane los defectos formales o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se desestimará su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en la legislación vigente.

#### **Artículo 5. Cuantía de la subvención**

La cantidad máxima a distribuir entre las becas por la realización de estudios de euskaldunización durante el curso se estimará en el presupuesto anual.

Las subvenciones reconocidas por la presente Normativa serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por Organismos Públicos o privados para el mismo objeto, sin que en ningún caso pueda existir sobrefinanciación, procediendo en tal caso la reducción de la subvención a conceder hasta el límite del costo total de la actividad subvencionada. En caso de que con posterioridad se generase una sobrefinanciación de la actividad y concurriese más de una obligación de reintegro por sobrefinanciación, la persona beneficiaria reintegrará la cantidad proporcional que le corresponda en función de la aportación sobre el total que haya efectuado el Ayuntamiento de Berriz.

## 6. artikulua. Baloratzeko irizpideak

Xede honetarako jarritako aurrekontu-partidak ahalbidetuz gero, horrela lagunduko dira ikastaroak:

**Trinkotasun txikiko ikastaroak (egunean ordu eta erdi, ordu bi eta hiru ordukoak).**

- Asistentziaren % 80-90 - gehienez matrikularen % 75.
- Asistentziaren % 90etik gora - gehienez matrikularen % 90.
- Asistentziaren %100 - matrikularen %100era arte.
  - Trinkotasun handiko ikastaroak (barnetegiak, bost ordukoak edo hortik gorakoak, autoikaskuntza). Kostuaren %80.
  - Ikastaro (maila) bakoitzeko diru-laguntza eskatu daiteke (gehienez 3 urtez). Behin epe hori igarota eta ikasleak maila berean jarraitzen badu, ezingo du diru-laguntzarik eskatu.

## 7. artikulua. Instrukzioa eta ebazpena

Euskara saileko teknikariaren txostena aztertu ostean eta euskara informazio-batzordeko proposamenari ekinez, eskariak alkatearen dekretu bidez ebatziko dira, gehienez ere, abenduaren 31 baino lehen.

## Artículo 6. Criterios de valoración

Se subvencionará de la siguiente forma siempre y cuando la partida presupuestaria fijada para ello sea suficiente:

**Cursos no intensivos (hora y media, dos horas o tres horas diarias).**

- 80-90% de asistencia - con un máximo del 75% de la matrícula.
- Asistencia superior al 90% - hasta el 90% de la matrícula.
- 100% de asistencia - hasta el 100% de la matrícula
  - Cursos intensivos (internados, cursos de 5 y más horas, autoikaskuntza). 80% del coste total.
  - Por curso/nivel se podrá solicitar subvención (máximo 3 años). Una vez finalice ese plazo, si el alumnado continúa en el mismo nivel, no podrá solicitar subvención.

## Artículo 7. Instrucción y resolución

Las solicitudes serán resueltas mediante Decreto de Alcaldía, a propuesta de la Comisión Informativa de Euskera, previo informe técnico del departamento de euskera, con anterioridad al 31 de diciembre.

Aipatutako data igaro ostean ebazpenik jaso ezik, ulertu behar da eskaria gaitzetsi egin dela, gerora egin daitekeen ebazpenaren kaltetan izan gabe.

En el caso de que transcurrida dicha fecha, no conste resolución expresa de la solicitud, se entenderá que la misma ha sido denegada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.

### **8. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea**

Dirulaguntza eman dela jakinarazi ondoren, ordainketa tramitatuko da, aurrekontua betearazteko Udal Araudian ezartzen denarekin bat etorritz.

### **Artículo 8. Pago de la subvención**

Tras la notificación de la concesión de la subvención, se procederá a tramitar el abono de la subvención de acuerdo con lo indicado en la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria.

### **9. artikulua. Dirua itzultzea**

Halaber, dirua itzultzeko zioak dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36 eta 37 artikuluetan jasotako guztiak.

### **Artículo 9. Reintegro**

Así mismo, serán causas de reintegro todas las previstas en los artículos 36 y 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

### **10. artikulua. Aplikatu beharreko arautegia**

Oinarri hauetan aurreikusten ez diren puntuetan, honako hauek aplikatuko dira: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa; eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onetsi duena eta aplikagarriak diren bestelako araudiak.

### **Artículo 10. Normativa aplicable**

En lo no previsto en las presentes bases será de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y demás normativa que resulte aplicable.